

ONGi

Gaur egun, dohaintzak egitea ez dago behar bezain hedatuta. Jende gehienak ez du dohaintzak egitearen kontu hau baliagarria ikusten; izan ere, dohaintzak egiteko zein produktu baliozkoak diren eta zein GKeri interesatu dakizkiekeen erabakitzea zaila da. Horregatik, ideia honekin bezeroek egokitzen dituzten artikulak argitaratu ahal izango dituzte, eta GKEek behartuenentzat beharrezkoak izango direnak aukeratu lituzke, modu efizientean baliagarriak ez diren produktuak ezabatzeke aukera izanik.

Ziur asko egongo dira antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten elkarteak. Haatik, gure enpresak, aplikazioa sortzean, hain garrantzitsua den jarduera hau gazteei gerturatu die, eta prozesua erabat azkartu eta erraztu du. Gu merkatuan sartu aurretik, prozesu luzea eta korapilatsua zen, gazteentzat eta adinduentzat ezinezkoa. Orain, donazio kopurua handitu daiteke, mundu guztiari hurbiltzen dizkiogulako, kontzientziazteko eta sustatzeko.

Hori dela eta, esan daiteke bereizten gaituen ezaugarria kuantitatiboa dela. Gure helburua prozedura azkartzea eta horrela donazio kopurua handitzea da, beraz azkartasuna eta bolumena dira gure zerbitzuak eskaintzen dituen ezaugarrietako bi.

